

ITSASERTZA

GIPUZKOA



G•6 Mutriku— —Saturrarango itsaslabarrak

Itsaso gainean aldapa izugarria duten itsaslabarren zerrenda bat da eta paisaia guztiz malkartsua osatzen du. Itsasbeheran, itsasoaren higadurak eraturako abrasio—plataforma zabala, edertasun handikoa, ikus dezakegu.

Itsaslabar hauetara iristea zaila da eta, beraz, aterpe egokia eskaintzen diete itsasoko hegaztiei, koloniak osatzeko toki babestuak behar baitituzte.

Saturrarango hondartza jendetsua hain hurbil egon arren, hasiera batean behintzat ez da arrisksua enklabearentzat, luraren ezaugarriak kontuan hartzen baditugu.



G•7 Zumaiako itsasadarra eta hareatza

Urola ibaiak bere ibai—ahorantz doan azken zatian dibertsitate handiko eta paisaiaren aldetik kalitate oneko zenbait padura—enklabe zeharkatzen ditu.

Mareen gorabeheren menpe dagoen gune hori Santiago hondartza aurreko dunetan hasten da eta limoz eta hareaz betetako eremu lau batean jarraitzen du. Aurrerago, itsasadarrak meandro leun bat marrazten du. Hemen ibaiertz batean hegala aldapatsu bat topatzen du, jatorrizko artadiak estalita, eta beste ibaiertzean, neurri batean industrialde batek okupaturako ibar—eremu bat. Azken herenean padurako landarediak estalitako bi uhartetxo sedimentario urgaineratzen dira; bertan espezie ugarietako hegazti—kopuru handi bat biltzen da, eta azpimarratzekoa da limoetako espezieen barietatea.

Area horrek guztiak hiri—eragin handia jasaten du eta, ondorioz, enklabe berezi horren kontserbazioa arriskuan dago.

G•8 Itsasertzeko Aitzuri muturra (Mendata)— —Zumaia zatia

Itsasertzeko gune honek aparteko interes geologikoa du: aldapa pikoak eta gorabehera handiko muturrak dituen itsaslabar—eremu bat da. Erdian

badia luze bat du, Aitzurin, eta horrek abrasio—plataforma ikusgarri bat erakusten du itsasbehera denean. Haren gainean, ia bertikalki, kolore zurixka eta arrosako geruza finak altxatzen dira, paisaia ikusgarria eratuz.

Toki ezin hobea da prozesu geologikoak eta itsasoko flora eta fauna aztertzeko.